




- **DISTANTZIA:** 13,5 KM
- ⌚ **AURREIKUSITAKO DENBORA:** 6 H
- ⤴ **DESNIBELA:** 1026 M

TXAMANTXOIA (1.945 m)

HASIERA:
ASOLAZE KANPINA

- OHARRA:**
- Goi mendiko ibilbidea da.
 - Goiko aldean laino itxia ohikoa da; bat-batean sortzen da. Beharrezkoa da urte osoan jantzi beroak eta GPS-a eramatea.
 - Neguan gune izoztuak egon daitezke, baita elur-jausi eta eroriko bertikalak izateko arriskua ere. Urtero horretan egiten bada, beharrezkoa da segurtasun eta autobabes material egokia eramatea.



Txamantxoia mendiko tontorrera doan igoera-bide bikaina mendebaldeko gailur-lerro luzea aprobetxatuz. Ibilbidean marka zahar gorriak eta urdinak daude, gailur-lerroaren goialdera eramanen gaituztenak. Asolaze kanpinetik abiatu (925 m) eta osorik zeharkatuko dugu goiko aldeko langaraino. Handik aurrera gune oihantsuan barneratuko gara bide eder bati jarraituz: bide hau Izabatik Arrakogoitiko lepora doan GR 321 Errege-bidearekin bat dator. Lepo batean GR321 bidea alde batera utzi eta eskuinera jo beharko dugu Txamantxoiarantz igotzeko. Gora jarraituko dugu zura ateratzeko bide bat igarota, eta hegal belartsuetan barna mendebaldeko mendi-bizkarreraino helduko gara. Larretan gora eginez Belaguako eta inguruetakoko ikuspegi ederrak gozatuko ditugu. Azken aldapa txikiagoak igaro ostean Txamantxoiako gailurra zapalduko dugu (1945 m), bere zutoin geodesiko handiarekin eta postontzi metalikoarekin.